

Ura



ingurumena.net

*Gure esku dago
está en nuestras manos*


EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



Etxeetako ur-kontsumoa gero eta handiagoa da (ur-kontsumo guztiaren % 25 gaur egun), prezipitazioak irregularrak dira eta eskualde asko basamortu bihurtzen ari dira, planetako kliman gertatzen ari den aldaketaren ondorioz. Horregatik, behar-beharrezkoa da ura erabiltzeko ohiturak aldatzea eta baliabide hori eraginkortasun handiagoz baliatzea. Euskal Autonomia Erkidegoa eskualde euritsua den arren, agorraldiek gure baliabide hidrologikoak hobeto zaintzera behartzen gaituzte. Arlo horretan, **Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020**k bi helburu hauek ezarri ditu: uraren kudeaketan aldaketak egitea eta alferrikako nahiz gehiegizko kontsumoa gaitzea.

Eusko Jaurlaritzak 2006ko ekainean onartutako **Uraren Legeak** eskariaren kudeaketan oinarritutako ur-politikari ekiteko beharrezkoak diren zuzenbide-esparrua eta tresnak garatzen ditu. Bestek beste, legeak **Uraren Euskal Agentzia** sortzen du, EAEn uraren arloko politika aurrera eramateko tresna nagusia izan dadin, eta uraren kanon berri bat arautzen du, baliabide horren erabileraren benetako kostura hobeto egokitzen dena eta premiarik gabe xahutzen dutenak zigortzen dituena.

Nazio Batuen Ingurumen Programak (PNUMA) sustatutako **GAP Programak** (Ekintza Plan Globala) eguneroko jokabideak hobetzen laguntzen du, honako arlo hauek landuz: erosketak eta hondakinen kudeaketa, ur-kontsumoa, energia-kontsumoa eta garraioa. 2003 eta 2004 urteetan Debabarrena eta Urdabai eskualdeetan egindako esperientzia pilotuak erakutsi duenez, GAP Programa oso tresna baliagarria da Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-estrategia aurrera eramateko. Bestek beste, programan parte hartu zuten 4.000 familiek 15 milioi litro ur gutxiago kontsumitu zuten etxean (50 metroko 6 igerileku olinpiarretan sartzen den ur kopurua), eta 700 tona CO2 gutxiago aireratu zuten.

Ura eskuliburuak gure kontsumo ohiturak benetako beharretara egokitzeko etxean bertan egin ditzakegun zazpi ekintza praktiko jasotzen ditu. Liburuxka bakoitzarekin batera bidalitako galdera-sorta erabiliko dugu aurrerapenak ebaluatzeko eta zer lortu dugun jakiteko. Galdera-sorta bete ondoren, atzera bidali behar diguzu.

¡Joka ezazu ingurumenaren alde, irabazian aterako zara eta!

- **Klima-aldaketaren aurka borrokatuko zara**
- **Etxeko kontsumoa murriztuko duzu**
- **Dirua aurreztuko duzu**
- **Zure ingurunea hobetuko duzu**

¡Gure esku dago!





Informazio gehiago nahi baduzu, deitu
902 404 525 telefonora.
GAP©. GAP Euskadi,
95FD posta-kutxa, 48080 Bilbo



ingurumena.net

Gure esku dago





EKINTZEN AURKIBIDEA

1 TANTA BAT ERE EZ GALDU

Ez utzi joaten Pág. 4

2 NAHASI AIREA URAREKIN

Jar itzazu ura aurrezteko tresnak Pág. 6

3 W.C.: NEURRI-NEURRIAN ERABILI

Ondo kontrolatu komuna Pág. 8

4 BETETA DAUDENEAN

Ur hotzez garbitu, garbigailua goraino beteta eta xaboi gutxirekin Pág. 10

5 EURIA, ITSASOA BAINO HOBEA

Aurreztu ura gorputza garbitzean Pág. 12

6 BILTEGI KIMIKOAK

Aurreztu espazioa garbiketa-tresnen armairuan Pág. 14

7 LANDARE AUTOKTONOEKIN

Ura, neurri-neurrian Pág. 16



TANTA BAT ERE EZ GALDU

¿Zergatik ekin?

Egoera txarrean dauden hodi eta txorrotetatik uste dugun baino askoz ere ur gehiago galtzen da alferrik.

Ba al zenekien tanta dariola dagoen txorrota batek urtean 9000 litro ur inguru botako dituela isurbidetik?

Zerbait egin behar dugu ur hori guztia alferrik ez galtzeko.

EKINTZA: ez utzi joaten

- Erabiltzen ez dituzunean, txorrotak ondo itxita daudela ziurtatu beti. Palanka-txorrotak erabiltzen errazagoak dira, tanta-jarioak eragozten dituzte eta, ur hotza eta beroa nahastea errazten dutenez, energia-kontsumoa gutxitzen dute.
- Kontrolatu ur-ihesak kontagailuaren bidez. Oso erraza da: 2 edo 3 orduz ura erabiltzeari utzi, eta bitarte horretan kontagailuak ibiltzen jarraitu duen begiratu. Hala bada, baliteke ur-ihesaren bat egotea.
- Aurkitutakoan, saia zaitetz zeuk konpontzen, erreminta batzuekin. Uste baino errazagoa dela ikusiko duzu. Ur-ihesa zure kabuz konpontzeko gai ez bazara, deitu iturginari.

Aurrezpena Lurrarentzat



Ur-ihesak konpontzen baditugu, ur edangarri gehiago egongo da ibai eta urtegietan bizi diren animalia urtarrentzat.

Aurrezpena zure etxearentzat



Ur-ihesak edukitzea dirua zaramara botatzearen parekoa da. Tanta-jarioa duen txorrota bakoitzeko 15 euro galtzen ditugu urtean.

URA BANATZEKO SAREA

Gizakiak egunean 2 litro ur besterik ez du behar bizitzeko. Hala ere, mendebaldeko gizartean, etxe askotan pertsonako 250 litro baino gehiago kontsumitzen dira egunero. Hainbeste ur erabiltzen dugunez, ur-erreserba handiak eduki behar ditugu, beti ura izango dugula ziurtatzeko.


Kontsumitzen den ur gehienaren jatorria lurrazaleko urak dira (urtegiak eta ibaiak). Gure etxeetara iritsi baino lehen, urak bide luzea egiten du tamaina desberdineko hodiz osatutako sare zabal batean barrena. Batzuetan, kilometro askoko bidea egin behar izaten du. Etxean bertan ere, urak metro ugari egiten ditu txorrotatik irten baino lehen. Ibilbide horretan, ur-galera handiak gertatzen dira eta, gehienetan, ura alfer-alferrik galtzen da, inori onurarik egin gabe.

Kalkulurik baikorrenen arabera, banatzen den ur guztiaren heren bat galtzen da hodietan. **Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020k** helburu hau ezarri du: 2002. urteko datuak oinarritzat harturik, 2012. urterako ur-hornikuntzan gertatzen diren galerak % 20 gutxitzea.

* GAP Programak 2003-2004an egindako proba pilotuaren emaitza (Debabarrena – Urdaibai)

	EUSKADI	ERRESUMA BATUA	AEB	HOLANDA
UR- AURREZPENA	%7	%18	%5	%10

* 15 milioi litro ur aurreztu ziren (15.000 pertsonak urte batez bizitzeko edan beharko luketen kopuruaren parekoa).





NAHASI AIREA URAREKIN

Zergatik ekin?

Gehienetan, behar dugun baino ur gehiago ateratzen da etxeko txorrotetatik.

Ba al zenekien irekita dagoen txorrota baten ur-emia minutuko 10 litrokoa izan daitekeela?

Ekintza honen bidez, zuzenean handituko duzu etxeko ur-kontsumoaren eta, horrekin batera, energia-kontsumoaren eraginkortasuna.

EKINTZA: jar itzazu ura aurrezteko tresnak

- Iturgindegia batera joan eta ur-kontsumoa gutxitzeko sistemei buruzko informazioa eskatu. Instalatzeko, zure txorrotetatik ura zenbateko presioarekin ateratzen den jakin behar duzu.
- Jarri ura aurrezteko tresnak txorrotetan, dutxetan eta komun-ontzietan. Emaria murrizteko mekanismoei esker, lehengo zerbitzu bera egingo digute, baina ur gutxiago kontsumituz.

Aurrezpena Lurrarentzat



Hiru pertsona bizi diren etxe bateko ur-iturri guztietan ura aurrezteko tresnak jartzen baditugu, urtean 95.000 litro inguru aurreztu ahal ditugu.

Aurrezpena zure etxearentzat



Txorrotetan ura aurrezteko tresnak jarrita, urtean 25 eta 50 euro bitarteko aurrezkiek lor dezakezu.

ZER DIRA URA AURREZTEKO TXORROTAK?

Ura aurrezteko txorrotek dutxatik edo harraskako txorrotatik ateratzen den ur-emaria gutxitzen dute, baina haien eraginkortasuna murriztu gabe. Printzipio xume bat dute oinarri: txorrotako irtengunearen diametroa txikituz gero, uraren presioa eta abiadura handitu egiten dira. Ura airearekin nahasteko tresna bat jarrita (atomizagailu arrunt bat izan daiteke), presio handiko ura edukiko dugu. Ura zurrusta mehe ugaritan irteten da, eta ondo garbitu ahal gara oso ur gutxirekin. Esaterako, 5 minutuko dutxa hartzean minutuko 18 litro ur ateratzen badira, pertsona batek 90 litro erabiltzen ditu; minutuko 6 litro ur isurazten duen atomizagailu bat jarritz gero, ordea, 30 litro bakarrik erabiliko ditu.

Mota askotako teknologiak erabiltzen dira. Emaria gutxitzen duten sistemek, esaterako, silikonazko pieza bat daukate. Piezaren sekzioa uraren banaketa-sareko presioaren araberakoa da. Presioa handitzen denean, silikonazko piezak sekzioa txikitzen du, eta alderantziz. Horrela, ur-emari beti berdina ziurtatzen da, ohikoa baino txikiagoa. Denda espezializatueta mota askotako sistemak aurkituko dituzu.

Ur edangarria banatzeko sareko emariaren presioak aldaketa handiak izaten ditu, instalazioaren altueraren arabera, eraikinaren kokapenaren arabera eta abar. Presioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta eraginkorragoak dira sistemak. Horregatik, ura aurrezteko txorrotak jartzerakoan, garrantzi handikoa da presioa kontuan izatea.



3

NEURRI-NEURRIAN ERABILI

Zergatik ekin?

Komuneko tanga edateko urez beteta egoten da, eta pertsona batek egunean 6 edo 8 aldiz erabiltzen du. Kalkula ezazu zenbat ur joaten den komun-zuloetatik!

Ba al zenekien munduan 1.100 milioi pertsonak ez dutela edateko ur-hornidurarik eta 2.600 milioik ez dutela saneamendu-sistematik?

Komuneko ur-kontsumoa gutxitzen duten jarduera guztiek gure baliabideak zentzuz eta eraginkortasunez erabiltzen laguntzen dute.

EKINTZA: ondo kontrolatu komuna

- Beharrezkoa denean soilik erabili komuneko ur-tanga, eta gogoan izan erabiltzen duzun bakoitzean 6-10 litro ur isurtzen dituela.
- Zure ur-tanga zaharra bada eta oraindik ez baduzu eraginkorrago bat jarriko, hau egin dezakezu ur gutxiago erabiltzeko: jarri tanga barruan urez betetako botila bat, ondo itxita eta mekanismoaren funtzionamendua ez eragozteko moduan.
- Ur-tanga aldatzea erabaki baduzu, joan komunerako gauzak saltzen dituen denda batera eta galdetu ura aurrezten duten tanga-modeloez. Mota askotakoak daude salgai, eta zure beharretarako egokia den bat aurkituko duzu.
- Ez bota komun-ontzira zigarrokinik, kotoirik, konpresarik, oliorik edo produktu kutsatzailerik. Komuneko zuloa tratatzeaz gain, uren arazketa oztopa dezakete. Hodiak libratzeko produktuak ere kutsatzaileak izan daitezke.

Aurrezpena Lurrarentzat



Tangako kateari eragiten diogun bakoitzean –eta ia automatikoki egiten dugu hori-, 9 litro ur inguru gastatzen ditugu.

Aurrezpena zure etxearentzat



Ura ondasun baliotsua da, eta etxeko ur-kontsumoaren % 40 komuneko tangak sortzen du. Uraren prezioa igo ahala, tangaren erabilera egokiak fakturan ordaintzen dugun diru kopurua murriztuko du.

KOMUNA: ASKOZ ERAGINKORRAGOA IZAN DAITEKEEN ASMAKIZUN BITXIA

Industriaren adar batek gero eta ur gehiago aurrezten dituzten komun-ontziak diseinatzeko erabiltzen den teknologia xumea da, kontsumo gutxiko garbigailuetan erabiltzen dena baino askoz ere simpleagoa. Ura aurrezten duten bi komun-ontzi mota nagusi daude merkatuan: tekla bikoitzekoak eta nahi denean gelditzekoak. Lehenengo kasuan, erabiltzaileak bi tekla ditu aukeran: tanga osorik husten duena eta ur kopuru txiki bat bakarrik husten duena. Urak eraman beharrekoaren arabera, bata edo bestea sakatuko dugu. Bigarren kasuan, deskargatzen den ur kopurua nahierara erregulatzen da, botoi baten bidez.

Baina are urrunago joan daiteke: dagoeneko, enpresa batzuek eskaintzen dituzten komun-ontziak xurgatze pneumatikoaren bidez arrastatzen dituzte irazkinak, ez uraren edo grabitatearen indarraren bidez, eta aldi bakoitzean litro bat ur baino ez dute erabiltzen. Hala ere, sistema hori eraikin osoan instalatu behar da.

Tarteko irtenbide bat ere badago: etxe barruan ura birziklatzen duten zirkuituak. Dutzan edo konketan erabilitako ura ontzi batean biltzen da eta hortik komuneko tangara joaten da. Etxean, barazkiak garbitzeko erabilitako ura ere balia dezakegu komunerako, edo behar bezain bero egon aurretik dutxatik ateratzen den ura.



4

BETETA DAUDENEAN

Zergatik ekin?

Gure herrialdean, ia etxe guztietan arropa-garbigailua dago, eta familien % 26k ontzi-garbigailua daukate.

Ba al zenekien etxetresna elektriko horiek, batez beste, egunean 50 litro ur kontsumitzen dituztela familia bakoitzeko?

Etxetresna elektriko horiek eraginkortasunez erabiltzen baditugu, ur eta energia gutxiago kontsumituko dugu etxean.

EKINTZA: ur hotzez garbitu, garbigailua goraino beteta eta xaboi gutxirekin

- Ez erabili garbigailuak erdi beteta: abian jarri baino lehen, arropaz edo ontziz bete-beteta egon arte itxaron.
- Ez erabili lixiba gehiegi, ur-araztegien lana zailtzen duelako, eta saia zaitetz fosfatorik gabeko garbigarri ekologikoak erosten.
- Garbiketa-programa laburrak erabili beti. Arropa orain bezain garbi geldituko zaizu, eta ur nahiz energia gutxiago kontsumituko duzu.
- Erosketak egitean, gogoan izan garbigarri ekologikoak daudela, konbentzionalak bezain onak.
- Garbitzean, beharrezkoa den garbigarri kopurua soilik erabili (paketean idatzita egon ohi da).

Aurrezpena Lurrarentzat



Garbigailuen eraginkortasuna hobetzen baduzu, aurrezki handia lor dezakezu: etxean kontsumitzen duzuen ur guztiaren % 5 inguru. Horrela, zure herria ur edangarriz hornitzeko segurtasun-tartea handitzen da.

Aurrezpena zure etxearentzat




Ur, energia eta garbigarri gutxiago kontsumituz, dirua aurreztuko duzu eta, gainera, zure jantzi eta ontziek gehiago iraungo dute ur hotzez eta detergente gutxiagorekin garbitzen badituzu.

GARBIGAILUAK: TEKNOLOGIA AURRERATUA ALA SEN ONA?

Garbigailurik berriek askotariko osagarri teknologikoak dauzkate: logika difusoko programak, detergente-sentsoreak, ur-jarioa automatikoki eteten duten segurtasun-sistemak eta abar. Teknologia hori guztia bi hitzetan laburtzeko, garbigailuak gero eta adimendunagoak direla esan dezakegu. Egindako kalkuluen arabera, horrelako teknologiak erabiltzen hasi direnetik, izugarri gutxitu da uraren eta energiaren kontsumoa: 5 kg arropa zuri 90 gradutan garbitzeko, esaterako, 3 kWh eta 150 litro kontsumitzen ziren 1973an, eta 1,5-1 kWh eta 55 litro gaur egun.

Ur- eta energia-kontsumoari dagokionez, ontzi-garbigailuek ere izugarri handitu dute beren eraginkortasuna, eta behar guztiarako ezaugarri egokiak dituzten modeloak daude (tamaina, edukiera nahiz energia-iturria). Esaterako ontzi-garbigailu nahiz arropa-garbigailu bitermikoek bi ur-hartune dauzkate, bata ur hotzerako eta bestea gasezko berogailutik datorren ur berorako. Ura berotzeko elektrizitaterik erabiltzen ez dutenez, horrelako garbigailuek energia asko aurrezten dute.

Hala ere, aurrerapen teknologikoak sen onez erabiltzen jakin behar dugu. Azken batean, guk aukeratzen dugu programa mota, temperatura edo garbigarria, eta etxetresna horien benetako eraginkortasuna gure erabakien araberakoa izango da.



5

EURIA, ITSASOA BAINO HOBEA

Zergatik ekin?

Gorputza garbitzeko ohiturak oso onuragarriak dira gure osasunarentzat, baina ur-kontsumo handia sortzen dute.

Ba al zenekien bainatu ordeztuta azkarra hartzen badugu 100 litro ur baino gehiago aurrezten ditugula?

Gure garbiketa-ohitura batzuk aldatzen baditugu, etxeko ur-kontsumoa gutxitzea lortuko dugu.

EKINTZA: aurreztu ura gorputza garbitzean

- Erabili dutxa gorputza garbitzeko (30-40 litro), eta ez bainua (100-130 litro).
- Laburtu dutxa azpian txorrota irekita ematen duzun denbora. Xabotzen zaren bitartean, itxi txorrota, eta ez egon denbora gehiegi ur-zurrustaren azpian.
- Hortzak garbitu edo bizarra egiten duzun bitartean, behar-beharrezkoa duzunean soilik ireki txorrota. Gainera, txorrota ireki beharrean edalontzi bat erabiltzen baduzu, 14 litro ur aurreztu ahal dituzu aldi bakoitzean.
- Xaboi gehiegi erabili arren, ez gara garbiago geratuko. Hondakin gehiago sortu besterik ez dugu egiten, eta, gainera, xaboi gehiegiak kalte egin diezaioke gure larruazalari.

Aurrezpena Lurrarentzat



Dutxaren ordeztuta bainua hartzeak eta konketa neurritz erabiltzeak ura berotzeko behar den energia aurrezteko dakar eta, horrenbestez, energia hori sortzeko beharrezkoak diren ikatza, petrolioaren deribatuak edo erregai nuklearra ere aurreztuko ditugu.

Aurrezpena zure etxearentzat



Dutxan denbora laburragoa ematen badugu, ura aurrezten dugu (gutxi gorabehera, minutuko 10 eta 20 litro bitartean).

BAINUGELAREN JATORRIA

Bainuetxeak egiptoarren garaian sortu ziren, baina eraikin publikoak izan dira beti. Jendea hara joaten zen bere higieua zaintzera eta komunitateko beste kide batzuekin harremanetan jartzera. Orduz geroztik, ia kultura guztietan izan dira horrelako eraikin eta jarduerak.

Europar, XVII. mendean, sendagileak norberaren gorputza egunero apur bat garbitzea gomendatzen hasi ziren. Gutxienez eskuak eta aurpegia garbitzeko eskatzen zioten jendeari. Orduz geroztik, lehen bainuontziak sortzen hasi ziren, baina ez zuten arrakasta handirik izan gizartean. XX. mendean hedatu ziren etxe guztietara.

Dutxa betiko bainuontziaren aldaera bat da eta, gaur egun, beraren ordezkari ohikoa. Dutzarekin askoz ur gutxiago kontsumitzen da, eta dutxa-buruko aurrezte-sistemak erabat hedatu dira. Baina, bestetik, modelo berriek hidromasajea, sauna eta beste gehigarri batzuk dituzte, eta uraren nahiz energiaren kontsumoa handitzea ekar dezake horrek. Horregatik, erosteko orduan, aukeratutako sistemaren eraginkortasun-maila ere hartu behar dugu kontuan.



6

BILTEGI KIMIKOAK

Zergatik ekin?

Gure etxeetan ezin konta ahala garbigarri ditugu: zoruari distira ematekoak, zura tratatzekoak, ontzietarako xaboi likidoa eta beste. Produktu horietako batzuek osagai toxiko edota arriskutsuak dituzte.

Ba al zenekien pertsona bakoitzak 25 kg garbiketa-produktu erosten dituela urtean, gorputza garbitzekoak kontuan hartu gabe?

Horri buruzko gogoeta egin behar dugu, etxea gai kimikoen biltegia izan ez dadin.

EKINTZA: aurreztu espazioa garbiketa-tresnen armairuan

- Erosi aurretik, arretaz irakurri garbiketa-produktuen etiketak, eta produktu toxikorik edo ingurumenarentzako osagai arriskutsurik ez daukatenak aukeratu.
- Ozpina, bikarbonatoa eta horrelako produktuak erabili zeregin batzuetarako. Murriztu garbiketa-produktuen kontsumoa: egin ohi duzuna egiten jarraitu, baina produktu bakoitzetik kopuru txikiagoa erabiliz.
- Gogoan izan produktu horiek ezin dituzula zaramaren poltsara botatu. Toxikoak izan daitezkeen produktuen ontzi eta hondakinak garbiguneetan utzi behar dituzu.

Aurrezpena Lurrarentzat



Etxean uretara horrelako produkturik isurtzen ez badugu, ibaietako eta itsasoko kutsadura gutxitu eta ur-araztegien lana erraztuko dugu.

Aurrezpena zure etxearentzat



Erabiltzen ditugun produktuen kopurua eta kantitatea gutxitzen baditugu, "garbiketaren faktura" merkatuko dugu eta etxeko txikienek ez dute horrelako likidoak irensteko arriskurik izango.

GURE ETXEKO BILTEGI KIMIKOA

Etxean garbiketa-produktuak edukitzeak gure bizitokian substantzia kimiko ugari biltzea dakar. Gehienak ez dira oso arriskutsuak, baina toxikoak dira eta, hutsegitez kontsumitzen baditugu, kalte handia egin diezaiokeete organismoari. Kontu handiz ibili behar dugu etxeoko txikienek produktu horiek irents ez ditzaten. Gainera, harraskatik edo komun-zulotik botatzen baditugu, ura kutsatu eta arazketa-prozesua zaildu ahal dute.



KORROSIBOA

Etxeoko garbiketa-lan gehienak lau produktu hauek erabiliz egin ditzakegu: xaboi naturala, gatzak, bikarbonatoa (armairuetako eta hozkailuko usain txarra kentzeko, orbanak garbitzeko, desinfektatzeko...) eta ozpina (urarekin nahasirik zura, beira, ispiluak eta beste garbitzeko balio du).



SUKOIA

Hona hemen arriskutsuak izan daitezkeen substantzia batzuk:

- Azetaldehidoa (desinfektagarriak, leungarriak eta lixibak)
- Amoniakoa
- Bentzenoa edo bentzola (disolbatzaileak eta desinfektagarriak)
- Metileno kloruroa (metal-garbigarriak)
- Formola (labe-garbigarriak eta usain-kentzaileak)
- Lindanoa (intsektizidak eta zura babestekoak)
- Merkurioa (pilak eta koloratzaileak)
- Soda kaustikoa (libragarriak)
- Xilenoa (pinturak eta bernizak)
- Organokloratuak (desinfektagarriak, disolbatzaileak eta orban-kentzekoak)



INGURUMENARENTZAT
ARRISKUTSUA



NARRITAGARRIA



TOXIKOA



7

LANDARE AUTOKTONOEKIN

Zergatik ekin?

Lorategiak eta lore-ontziak ekosistema txikiak dira, euri kopuru eta tenperatura jakin batera egokituak.

Ba al zenekien landareak etengabe ureztatzeko erabiltzen dugun uraren kopuru handi bat alferrikakoa zaiela eta hazteko arazoak sortu ahal dizkiela?

Lorategia edo lore-ontziak badituzu, ura ez xahutzeko ideia interesgarri batzuk aurkituko dituzu hemen.

EKINTZA: ura, neurri-neurrian

- Murriztu ureztapena, eta landareen benetako beharretara egokitu. Hobe da iluntzean edo egunsentian ureztatzea, eta ez berorik handieneko orduetan, ura lurrun ez dadin. Gogoan izan mahukaz ureztatzea ura xahutzeko modu bat dela.
- Egun euritsuetan, bildu euri-ura ontzi batean, aurrerago erabiltzeko. Gogoan izan txorrotako ura baino askoz hobe dela landareentzat.
- Espezie autoktonoak jarri exotikoen ordez (hala ere, espezie exotiko batzuek oso ur gutxi behar dute, hala nola kaktusek).
- Lorategia baduzu, tantaka ureztatzeko sistema bat instalatu, eta pinuzalak edo hartxintxarrak hedatu lurraren gainean, ura lurrun ez dadin.
- Zure lorategian ongarririk edo desinfektagarriak erabili aurretik, informa zaitez ingurumenari egin ahal dioten kalteaz. Gero eta errazagoa da ongarririk naturalak erabiltzea (konposta eta desinfektagarri ekologikoak, esaterako).

Aurrezpena Lurrarentzat



Espezie autoktonoak landatzen badituzu, ur gutxiago kontsumitzez gain, zure lurraldeko balio ekologikoak kontserbatzen eta bioaniztasuna handitzen lagunduko duzu.

Aurrezpena zure etxearentzat



Lorategian soropil komertzialaren ordez espezie autoktonoak landatzen badituzu, orain erabiltzen duzun uraren erdia baino gutxiago beharko duzu lorategia ureztatzeko.

NOLA ERABILTZEN DUTE URA LANDAREEK?

Gure planeta "Ura" dei zitekeen, "Lurra" deitu beharrean. Izan ere, lurrazalaren parterik handiena likido horretaz estalita dago eta bertan bizi diren organismo guztiek elementu horren ehuneko handi bat daukate. Hala ere, gure planetako uraren % 97 gazia da, eta ezin da edateko edo ureztatze erabili. Gainerakoa (% 3) ur geza da. Kopuru urria dirudi, baina, ondo kudeatu eta banatzen badugu, aski da planeta osoa hornitzeko.

Landareek ura behar dute elikagaiak lurretik hartzeko, beren bizi-funtzioak egiteko eta zutik egoteko. Landareen osieran, urak portzentaje handia hartzen du. Bizirik iraungo badute, landareek ezinbestekoa dute gutxieneko erreserba batzuk atxikitzea, baina ondo egokitzen dira ur-urritasunera.

Basamortuko landareek arantzak dauzkate hostoen ordeaz, berotik babesteko, eta ura biltzen dute zurtoinean. Geruza lodi batek eguzkitik babesten du zurtoina, ura gal ez dadin. Landare tropikalek, ordea, behar beste ur daukate beti, eta ez dute horrelako babesen premiarik.

Espezieak aukeratzea funtsezkoa da. Oro har, landareak lehortera zenbat eta egokituago egon, orduan eta babes-sistema gehiago dituzte: hosto txikiak, gogorrak edo iledunak, arantzak, hostoen gaineko olio aromatizatzaileak eta abar. Sistema horiei esker, landareek hobeto baliatzen dute lor dezaketen ura. Gure "ekosistema txikia" sortzerakoan, oso lagungarria da horrelako sistemen berri jakitea.



Nahi baduzu, gehiago egin dezakezu: ingurumenaren alde ekintza gehiago egin nahi baduzu, zerrrenda honetako helbideetara jo dezakezu.

BESTE URRATS BAT

Ura banatzeaz eta arazteaz arduratzen diren enpresetan, ura hobeto kudeatzeko informazio aurkituko duzu interesgarria.

• INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA Uren Zuzendaritza.

Donostia-San Sebastián, 1 - Lakua
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 98 58
www.ingurumena.net

• ARABA

Aguas Municipales de Vitoria, S.A. (AMVISA)

Crispiana, zk. g.
01195 Crispiana-Krispiñana. Vitoria-Gasteiz
Tfno.: 945 29 04 74
www.amvisa.org

AMVISAren web orrian Gasteizen Ura Aurrezteko Plan Integralari buruzko informazioa dago, eta etxean ura aurrezteko hainbat sistema eta tresna azaltzen dituen gida praktikoa bat kontsulta daiteke.
www.amvisa.org/piaa/es/html/documentos3.shtml

Elgea mendietako Ur Partzuergoa

Burgeluko Udala
Burgelu etorbidea, 17
01192 Burgelu. Araba
Tel.: 945 42 07 13

Aiarako Uren Partzuergoa. Kantauriko Urkidetza

Ura aurrezteko aholkuak eta Arabako Aiara eskualderako ur-erreserbei buruko informazioa aurkituko duzu web orri honetan.
Larrabe auzoa, zk.g.
Araztegia
01479 Izoria. Araba
www.kantaurikourkidetza.net/index-c.php

Arabako Foru Aldundia (uraren web orria)

www.alava.net/urbanismo/elaguaenalava/elaguaenalavahome.htm

• BIZKAIA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Albia eraikina I, Done Bikendi, 8
48001 Bilbo
Tel.: 94 487 31 00

Busturialdeko Ur Partzuergoa

Portuondo Bide, 7 – Behea
48395 Sukarrieta. Bizkaia
Tel.: 94 687 01 07

Bizkaiko Foru Aldundia

www.bizkaia.net

• GIPUZKOA

Gipuzkoako Ur Kontsorzioa

Blanca Vinuesa eraikina. Portuetxe, 16 – 1. sol.
20018 Donostia
Tel.: 943 21 97 24 / Fax: 943 21 19 59
martintxo@gipuzkoakour.com
www.gipuzkoakour.com

Añarbeko Ur Mankomunitatea

Errotaburu pasealekua, 1 – 6. sol.
20018 Donostia
Tel.: 943 21 31 99 / Fax: 943 21 60 17

Txingudiko Mankomunitatea

Olaberria auzoa, 18
20303 Irun
www.txinzer.com/caste/inicio/inicio.asp

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.gipuzkoa.net

• **Uraren aldeko Ituna** ur-aurrezpena eta Erdialdeko Amerikako herrialdeekiko elkartzuna sustatzeko sortutako ekimena da. Informazioa nahi baduzu, kontsultatu web orri hau: www.alianzaporelagua.org

• **Ekologia eta Garapena Fundazioak** ur-kontsumoaren eraginkortasuna handitzeko baliabide ugari proposatzen ditu bere web orrian: www.agua-dulce.org